



BALOREZKO PROPOSAMENA

GreenRev sortu dugun aplikazio bat da. Kafetegi batean gendela, ondoan genituen aiton-amonak hitz egiten entzun genituen. Gure herriko kaleen situazioa komentatzen ari ziren halako iruzkinak adieraziz; “kalean dagoen kiratsa nazkagarria da”, “geroz eta zikinagoak daude ibai-hertzeak”, “gazteak ginenean ez zegoen hainbesteko kutsadura” eta “dagoen kutsadura oso nabaria da”. Hori entzunda, arazo larri bat dagoela ohartu ginen, eta honakoa egitea bururatu zitzaigun:

Guk sortu dugun aplikazio honek hainbat funtzio eta helburu ditu. Helburu nagusienetakoa jendea jakinaraztea da gaur egungo situazioataz. Horretarako, aplikazioaren zati batean gaur egungo iragarki aktualizatuak igoko ditugu, aplikazioa deskargatuta duten pertsonak munduan gertatzen diren berrietaz ohartarazteko.

Baita ere, produktuen atal bat dugu. Guk sortutako produktu horiek kutsadura gutxitzeko produktuak dira, adibide gisa, hamaiketakoa gordetzeko telazko boltsak. Produktu horiek aplikazio bertatik erostea daude, online.

Bestalde, gaian adituak diren pertsonak beraien iritzia ipiniko dituzte aplikazioaren beste atal batean. Iritziekin batera aholkuak emango dituzte beraien ikuspuntutik esanda. Horrela, jendea birziklatzera edo gehiago birziklatzera bultzatuko dute.

Horrez gain, mapa bat du. Bertan zure lokalizazioa jarri eta automatikoki zauden herrian dauden zakarrontziak nun dauden esaten dizu. Horrela birziklatzeko errexagoa duzu.